

DIRU ITURRIAK

Gure enpresan, beste edozein enpresa batean bezala, garrantzia ematen diogu gure zerbitzuaren truke, bezeroek zenbat ordainduko duten jakiteari. Gure enpresaren bezero nagusiak ikasleak eta haien familiak direla jakinda, ezarritako prezioak haientzako eskuragarriak eta zentzukoak dira.

Gure enpresak bi diru iturri nagusi ditu:
ordainketa bakarreko diru sarrerak, eta ordainketa errepikariak.

2

Alde batetik, ordainketa bakarreko diru sarrerak ditugu. Ikasleei zuzenean eskainitako zerbitzuen bidez lortuko dira. Bezero batek saio zehatz batera sartu nahi izango balu, 20€-ko sarrera ordaindu beharko luke. Horrez gain, aste batean saio bat baino gehiagotara joatea pentsatzen badute, 50€-gatik aste berdinean hiru klase desberdinetara joateko aukera eskaintzen dugu. Diru sarrera hauek, zerbitzua erabiltzen den bakoitzean edukiko ditugu eta hasieran gure diru sarreren zati handiena izango da.

Beste aldetik, ikastetxeekin lan egiteak ere diru sarrerak ekarriko ditu. Kasu honetan, gure enpresa, ikastetxeak zerbitzu konkretu bat bezala kontratatuko du, bai orientazio ekitaldi batean parte hartzeko edo baita programa zehatz baterako ere. Zerbitzu bakoitzeko, ordainketa bat egingo dute, eskainitako zerbitzuaren arabera. Ordainketa hauek ez dira gure diru sarrera nagusia. Nahiz eta oso garrantzitsuak izan, diru-sarrera hauek ez dute bezeroen bidez lortzen dugun diru sarreren pixua gainditzen.

Bi iturri hauetaz gain, publizitatea egiteko ekitaldiren bat edo hitzaldiren bat antolatzean, unibertsitate edo eskoletan diru sarrera osagarri bat edukiko dugu. Diru sarrera hauek bigarren mailakoak izando dira, gutxi gorabehera, diru sarrera guztiaren %10a.

Gure kasuan, guk batezere prezio finkoak ezartzen ditugu, 20€ko eta 50€ko diru-sarrerekin. Gainera, egon daitezke momentu konkrituak non prezio dinamikoak ere sartzen diren, adibidez, eskaera handia dugunean.

Amaitzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea gure proiektuak ez duela hasierako inbertsio oso handia. Horregatik, egindako plana oso erabilgarria ikusten dugu, gure ustez, enpresaren etorkizunen hobekuntza asko ekarriko dizkigulako.

